

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO-KANALAK**

Gure proiektu honen banaketa egin dadin eta ezaguna bihurtu dadin, hainbat banaketa-kanal erabiliko ditugu, horien artean gure web-gune propioa izango da nun produktuaren aurkezpena eta ezagutza emango den, ondoren aldizkariak eta sare sozialak beste baliabide bat izango dira, pedagogia berritzaileen inguruko formakuntza eta hitzaldiak oso garrantzitsuak eta oso baliabide onak dira gure produktua ezaguna izan dadin eta hezkuntza-sailean ezaguna egin dadin. Formakuntza horietan pedagogo eta hezitzaileekin hitz egiteko aukera izango dugu eta gure produktua aurkeztu dezakegu ondoren beraien iritzia eman dezaten.

Gure komunikazioa eta erlazioa bezeroarekin ez da salmenta ondoren amaitzen, alderdi teknologikotik ikusita tabletak arazo teknikoak izan ditzazke eta horregatik dugu zerbitzu-teknikoa arazoa konpondu dezan. Heziketa-sailak gure produktua erabiltzekotan eskoletako informatikariek hitzaldi bat jasoko dute irakasleekin batera produktuaren funtzionamendua eta oinarrizko arazo teknikoak konpontzen ikasi dezaten eta ikasleei lagun diezaieten.